

TINTAZKO MINGAINAK: AHOTIK IDATZIRA



**Igerabide Sarasola, Juan Kruz
idazle eta doktorea**

1. HASIERAN POESIA ZEN

Ahokotasunaren eta literaturaren arteko harremana ama-umeen artekoa dela esan liteke. Ahozko testuak idatziz biltzean hasi zen literatura idatzia; halaxe jaso ziren lehen epopeiak eta kantuak. Beraz, poesia da literatura ororen ama; eta areago, poesia da jakintza ororen ama, zientzia ororen ama. Izan ere, antzinako gizarteek poesia erabili zuten beren giza eta gizarte-jakinduria osoa biltzeko. Indiako Vedak, Greziako *Iliada eta Odisea*, Mesopotamiako Gilgamesh, eta abar, epopeia luzeak izateaz gainera, gizarte batzuen kultura-ondare dira; haietan biltzen dira gizarte horietako ohiturak, legeak, zientzia, teknika, erlijioa, historia, filosofia, poesia lirikoa, narrazioa, eta abar. Gordailu-funtzio hori aitortzen dio Havelock-ek¹ antzinako poesiari; hots, garai hartan poesiak biltzen zuen giza eta gizarte-ondare guztia. Beraz, ez da gehiegikeria esatea poesia dela literaturaren ama, eta orobat jakintza ororen ama. Gaur egungo abokatuak, arkitektoak, historialariak, idazleak, antzerkigileak, eta abar, poesiaren ume dira.

Baina umeek, nerabe bihurtzen direnean, gurasoak alde batera uzten dituzte, sinbolikoki hil egiten dituzte. Platon filosofo nerabeak bota egin zituen poetak bere Errepublikatik. Poesiaren umeak hazi eta idatzizko jantziak agertu zirenetik, poesiaren ama-funtzioa soberan geratu zen; areago: oztopo bihurtu zen ume haien garapenerako, zeren ume bakoitzak bere bidea hartu behar baitzuen, bakoitza bere aldetik garatu, hots, espezializatu, gero eta gehiago jakin gero eta gauza gutxiagoz. Arrazoiaren erresuman poesia mirabe xume izatera baztertu beharra zegoen, amaren eserlektetik kendu, eta neskame rola eman, genero askotan zatiturik: antzerkia, kontakizuna, lirika, epika...

1 - Havelock, Eric Alfred (1963): *Preface to Plato*. Belknap Press of Harvard University Press, Cambridge, MA, USA.

2 - Bowra, Cecile Maurice (1962), *Primitive song*, Watkins Natural History Books (Dolgeville, NY, USA).

2. HASIERAN, POESIA EZ ZEN HITZA

Dena dela, Havelock-ek aztertzen duen historia-unea baino harago jo dute beste iker-tzaile batzuek, horien artean Bowrak². Hark harri-aroko gizarteen parekoak aztertu zituen, hots, artean ehizatik eta fruitu-biltzetik bizi ziren gizarteak, gaur egun desagertuak ia erabat.

Nekazaritza-zibilizazio handiek beren jakintza osoa biltzeko sinbolo-sistema konplikatuak asmatu zituzten, eta orobat epopeia handiak, beren tradizioa bilduko zutenak. Eta, azkenik, idazmena ere asmatu zuten, gizarte horien jarraipena eta garapena ziurtatzeko. Garai horretan Grezian gertaturiko bilakaera aztertu zuen Havelock-ek, hots, pentsamolde mitikotik pentsamolde arrazionalera igarotzeko bilakaera, hein handi batean jada *Odisean* iragarria, zeren *Odisean* Ulises baita heroi nagusia, pertsonaia zuhurra, arrazoia indarraren gaineratik jartzen duena; *Iliadan*, Akiles zen eredu, indarra, ausardia. *Odisean*, Ajax da Akilesen oinordeko, eta Akilesen armak berak eskatzen ditu baina, azkenean, Ulisesek bereganatzen ditu, eta Ajax-ek bere buruaz beste egiten du.

Nekazari-kultura handietan, beraz, poesiaren funtzioa oso argia da. Baina, kultura haien aurretik, harri-aroko gizarteetan, ba ote zen poesiarik? Eta, baldin bazen, zer funtzio zuen?

Jakina, ez dago azterketa txit garbirik, eta kontuak nahasian ageri dira; esate baterako, Afrikako zenbait leinu ehizatik nekazaritzarako trantsizioan zeudelarik, bietako ezaugarriak aurkitu zituzten haietan ikertzaileek, Zumthor-ek, besteak beste³.

Alabaina, Bowrak atzerago jotzen du, eta ematen dizkigun adibiderik zaharrenetan oso kontu bitxi bat agertzen zaigu, eta esaldi honen bitartez laburbildu dezakegu: poesiaren jatorrian ez dago hitza, baizik eta silaba, soinua, doinua, esanahi erreferenzialik gabea, onomatopeiaren aurrekoa. Beraz, giza doinuetan hitzak agertu aurretik, silabak erabiltzen ziren, oihuen antzekoak, eta gero sartu ziren onomatopeiak, eta askoz geroago hitzak, eta are geroago esaldiak.

Adibide batzuk eskaintzen ditu Bowrak; esate baterako, Amerika Hegoaldeko Suaren Lurraldeko indiarrenak, *yagan* leinukoenak; inondik ere, oso egoera primitiboan bizi ziren, eta oso modu bitxian adierazten zuten adiskidetasuna, hain zuzen ere batera eta bestera modu erritmikoan jauzika ibiliz eta silaba ulertezinez lagunduriko kantu hau kantatuz; silaba haiek ez zuten esanahirik *yaganen* hizkuntzan.

Ha ma la
ha ma la
ha ma la
ha ma la...

Adiskidetasuna adierazteko erabiltzen zutela dio Bowrak. Segituan eman zidan aten-

3 - Zumthor, Paul (1983) Introduction à la poésie orale, ed. Senil, Paris.

tzioa horrek. Alegia, hori horrela bada, ahozko poesiaren jatorrian, egoera animiko baten adierazpena dago, sentimendu baten adierazpena. Badirudi, hitza agertu aurretik, gizakiak soinuak eta doinuak erabili dituela emozioak adierazteko. Agian, hizkuntzaren sorreran berean, zerbait denotatiboa baino lehenago (alegia, inguruko objektuak –zuhaitza, loreak, harria, ibaiak...– izendatzea baino lehenago) emozioak eta sentimenduak adierazteko joera aurkitzen dugu.

Ez dakit Bowrak azaltzen duen hori guztia hala gertatu ote zen orokorki. Baina haurraren garapena aztertzen badugu, ikus dezakegu antzekotasunik; gauzak izendatzen hasi aurretik, soinuak eta silabak erabiltzen ditu aurrena bere emozioak eta egoera animikoak adierazteko, eta geroago, aski geroago, hasten da inguruko objektuak izendatzen.

Agian kasualitate hutsa da Bowrak adierazitako ideia hori. Baina, kasualitatez, artean harri-arogan zeuden leinuetan behin eta berriz gertatzen zen fenomeno hori. Ikus di-tzagun beste adibide batzuk:

Emakume eta neskatxek adeitasuna adierazteko erabilitako kantua:

*Ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa...*

Bowra-k bereziki azpimarratzen du kantatzen diren soinu horiek emozio bat adierazteko erabiltzen direla, eta oro har oso monotonoak direla, entzuten duenarengan halako eragin hipnotiko bat eragiteko edo; hipnosiak, zentzu zabalean, entzulea baretu egiten du eta haren zentzuak zabaldu egiten ditu, eskaintzen zaiona barnera dezan eta horrek entzuleagan eragin bat izan dezan, adierazten zaion emozioa barnera dezan.

*Hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa...*

Yagan leinukoek, inondik ere, kantu mota horiek soilik kantatzen omen zituzten, esanahi jakinik gabeko silabez osatuak. Beste leinu batzuetan, hizkuntza ezezagunetatik hartzen zituzten hitzak eta silabak, edo aspaldiko hitzetatik, edo onomatopeietatik; baina, *yaganen* kasuan, Bowrak dio ez zela halakorik; nolabait mota horietako kanturik zaharrenean adibide omen ziren haienak

Lirikarik antzinakoaren jatorria ikusten du Bowrak halako piezetan, hots, poesiaren jatorria.

Suaren Lurralde berean, *ona* leinukoek ere antzeko kantuak zituzten. Goizean, egunari ongietorria emateko, honela kantatzen zuten:

*Ha ra xe uka
ha ra xe uka
ha ra xe u.*

Eta, ilunabarrean, egunari adio esateko:

*Hai ce rai ya
hai ce rai ya
hai ce rai ya.*

Beste leinu batzuetan, geroago eginiko kantuen zati gisa geratzen dira horrelako piezak, eta inondik ere bide horretatik sortu dira lelo asko.

Inuiten eta beste leinu askoren adibide ugari topatu dituzte. Bowrak pieza bat aipatzen du, bereziki, *arapajo* indiarrengandik jaso. Erlijio-errituetan erabiltzen omen zuten. Honela dio:

*Ye no wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci no
wi ci ni
wi ni wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci ni hay
yo wi ci ni hay
yo wi how
wi ci hay
yo wi ci no
wi ni no wa.*

Harrigarriena da kantu horretan agertzen diren silabak ez direla erabiltzen arapajo hizkuntzan. Badirudi edo antzinako hizkuntza galduren batetik etortzea, edo helburu erlijiosorako osatuak izatea. Gainera, pieza hori bera inguruetako beste leinu indiar batzuetan ere erabiltzen omen zen. Bowrak dio izan litekeela, indiar leinuen kanta horiek Suaren Lurraldeko kantak bezalakoak izatea aspaldi, eta gero, beste kantu motak agertu zirenean, hondakin gisa geratzea leinuen tradizioan.

3. HAUR POESIAREN ETA ANTZINAKO LIRIKAREN PAREKOTASUNAK

Gure hizkuntzan, Bowrak adierazitako piezen antzekoen zantzuak batik bat jolas-poesian ikus ditzakegu, haur folklorean, jada bigarren maila batean, hitzekin eta onomatopeiekin tartekaturik:

“Xirristi-mirristi, gerrena, plat, kikili salda olio zopa, hurrup, edan edo klik, ikilimikiliklik”. “Bara, bera, hirua, lara, boa, sea, zapa, zotza, behatza motza, errotako atsoa kaskamotza”.

Baina baditugu sentipenei eta bizipen emozionalei loturikoak ere, eta horien artean adibiderik bikainenak ditugu *ttunkurrunku* eta *ttikiriki* lo-kantak, bata babesa eta lo-giroa adierazteko, eta bestea pozteko eta esnarazteko.

Eta horien kide dira orobat “Ttolana, polana, ttonttilla pon”, “Atxia motxia perolipan” eta beste, nahiz eta gaur egun lelo hustzat erabiltzen ditugun, edota zenbait kantaren sarrera gisa.

Haurra itsu jaiotzen da; ez, ordea, gor. Hasieran, haurrarentzat murmurio bat besterik ez da ahozko hizkuntza, ezin ditu zeinuak deskodetu, baina soinuen ibaia bai, nolabait ulertzen hasten da. Hilabeteek aurrera egin ahala, berak nahita aho-soinuak sartzen hasiko da hitzen ibai horretan, negarra baino harago doazen soinuak, nahimenari eta oharrenari lotuak, negarraren erantzunetik haragoko beste pauso bat emanez. Soinu-jolas bat da lehenbizi; soinuak, erritmoak, intonazioak dira esanahiaren lehen urratsak, esanahi kontzeptuala baino lehenagokoak. Hitz bat esanahi batekin lotzea beste pauso bat da, ikusmenarekin zerikusi zuzena duena. Haurrak zerbait ikusten du, eta ikusten duen hori hitz baten bidez izendatzen du.

Beraz, hasieran soinuak eta erritmoa, antzinako lirikaren sorreran bezala; gero, izendatzea. Hala, kontuan izan behar dira bi alde horiek haur poesiaz mintzatzean, eta ahozkotasanaz mintzatzean. Hasieran, hizkuntzaren ibaian murgiltzen da haurra, etenik egin gabe. Ibai horrek haurrari oihartzun etengabeak dakartzkio, eta kontsolamendua eta babesa, eta emozio-sentipenak bereganatzea nahiz adieraztea.

4. HURRENGO PAUSOA: SOINUTIK IRUDIRA

Lehen epopeiak eta egitura sinboliko korapilatsua agertu aurretik, Historiaurreko gizartean poesian hitza eta irudi poetikoa agertzen hasten dira, betiere sentipen bati loturik. Haurra ingurua izendatzen eta objektuei eta fenomenoei pertsonak balira bezala hitz egiten hasten den moduan, hala sinesten zuten gizarte haiek ere hitzaren indar magikoan. Hortxe sortzen da hitzaren indar sinbolikoa; *tigre* hitza esateak tigrearen indarra eskuratzea dakar sinbolikoki. Beraz, hitzak indar zuzena du errealitatea osatzeko eta aldatzeko. Mentalitate berberarekin jokatzeko duen haurrak ere bere aro magiko-animistan, Piaget-ek aztertu duen haritik.

Aldi horretan pentsamolde nagusia analogia da, antzekotasuna; nola hemen, hala han; nola hau, hala hori. Objektuei eta naturako fenomenoei zuzenean hitz egiten zaie, haiekiko harreman zuzena baleuka bezala hizlariak. Ikus ditzagun adibide batzuk:

POEMA PIGMEOAK: GABON LURRALDEA:

Eguzki, Eguzki

Eguzki, Eguzki,
badator heriotza, badator amaiera;
zuhaitza erori da, eta hil.
Eguzki, Eguzki,
haurra jaio da amaren sabeletik;
heriotzak ikusi du, gizakiak ikusi du, Eguzkiak ikusi du.
Eguzki, Eguzki, Eguzki.

Ilargi gazte

Ilargi gazte!
Agur, Ilargi gazte!
Agur, agur!
Ilargi gazte!
Ilargi gazte, hitz egidazu!
Agur, agur!
Ilargi gazte!
Esadazu zerbait.
Agur! Agur!
Eguzkia irtetean
hitz egin behar didazu,
zerbait jan dezadan
goseak nago eta.
Esadazu zertxobait,
jan dezadan.
Agur! Agur!
Ilargi gazte!

Nire antilope gaixoa

Ez hil, mesedez, nire antilope gaixoa
nire antilope maitea.
Hain da behartsua nire antilopea;
nire antilopea umezurtza da.

Betiere, emozio eta sentipenak daude lehen mailan.

INUITEN POEMAK:

Ehizan dabilela, istripua

Barre egin nahi dut, lera puskaturik dago eta;
dena txiki-txiki eginik dago, eta barre egin nahi dut.
Hemen, *Talaviuyaq* honetan, izotz-muino bat jo dut
itzulipurdika erori naiz.
Barre egin nahi dut, baina negar egiteko gogoia datorkit.

Polita da

Polita da, zeinen polita,
kantu txiki bat egitea
avaya
baina ez zait ondo irteten,
avaya.
Polita da, zeinen polita
ehizan ibiltzea
baina ez naiz ehiztari ona
avaya.
Polita da, zeinen polita,
batek nahi duena gertatzen denean,
baina niri ez zait gertatzen.
Hain da zaila dena!
Avayaya!

ASIA: MALAKA PENINTSULA

'Semang' leinukoen kantak

Kra⁴

Hankekin zanpatuz, *kra*,
hor doa arrastaka, *kra*,
han urrun, zuhaitzean gora, *kra*,
ranbutan zuhaitzean gora, *kra*,
semei kanabera oso gora, *kra*,
hamaleg'n ganbera oso gora, *kra*,
haur kanabera oso gora, *kra*,
eta zintzilik jarri da, *kra*,
hara eta hona jauzika dabilta kra-ren umeak;
arrastaka doa, *kra*,
adarra okertu du jauzi egiteko, *kra*,
eta adarra dardarka geratu da, *kra*.

4 - Tximu mota bat da Kra.

5. AHOZKOTASUNA GAUR

Gaur egun, ahozkotasuna landu beharrez egiten diren ahaleginetan, iruditzen zait badagoela nahaste txiki bat: idatzizko testua oinarri duen ahozkotasuna hartzen da abiaburutzat. Hori ongi dago irratiko, telebistako, irakaskuntzako, hitzaldietako eta abarretako ahozkotasuna lantzeko: ongi ahoskatzen ikasi, diskurtsoa ondo antolatzen ikasi, jendearen arreta erakartzeko baliabide erretorikoak nola erabili ikasi, bertsoa ongi taxutzen ikasi... Buruaren agintepean dagoen ahozkotasuna da. Alabaina, bada beste ahozkotasun bat, etxekoa, eta eskolakoa ere bai hein handi batean, emozio eta sentipenen adierazpena duena abiaburutzat; hots, buruari baino gehiago bihotzari dago-kiona. Arlo horretan, ez dago hizlaririk, munduko onena izanik ere, guraso total baten parera iritsiko denik, bere umeari ipuin bat kontatzerakoan; ez dago CD edo grabazio-rik, munduko ipuin-kontalaririk onenak kontatua izanik ere, gurasoaren ahotsa ordezkaturiko duenik; ez dago bertso-saiorik, bertsolaririk onenak kantatua izanik ere, amona baten sehaska-kanta ordezka dezakeenik.

Beste modu batera esanda, pieza bat edo ipuin bat haurrari grabaturik entzunaraztea gaizki ez dago, baina ez du parerik amak edo aitak (edo irakasleak, eskolan) kantatu edo kontatzearekin. Sentipen edo emozio bat adierazteko piezak izanik, garrantzitsuen a emozio hori adieraztea da: ni zure ondoan nago, zu babesten ari naiz, nire kuttuna zara, oso gauza garrantzitsu bat adierazten ari naiz oraintxe, eta abar. Horiek dira ume bati poematxo bat edo ipuin bat esaten diogunean ematen dizkiogun mezu nagusiak. Forma aldetik hobeto edo okerxeago egitea, hobeto afinatzea edo desafinatzea, horiek bigarren mailako kontuak dira; hobe, noski, ahots ederrez eta afinaturik kantatzea, hobe ipuina ondo ahoskatu eta antzetzeko ere gai izatea, hobe erritmo egokia ematea piezari, hobe bertsoa ongi taxutzea... baina, norberaren gorputzaren presentziarik gabe, barruan sentitzen dugun gogoan nabarmendu gabe, norberaren ahotsarekin barruko emozioa zuzenean adierazi gabe... hori gabe, gainerakoa apainkeria hutsa da. Egin proba; haserre eta nazkatuak eta asperturik zaudetela, hasi kontatzen ipuina sentipen horiekin, disimulatuz nahi baduzue, ea haurrak zer aurpegi jartzen duen. Gurasoa ipuina edo poema batere interesik gabe irakurtzen edo esaten ari denean, segituan antzematen dio haurrak. Berritio diot: oinarrizkoa emozio bat adieraztea da; ez dago ezer berezirik egin beharrik: gogoz esan ipuina edo poema, haurrari bihotzetik bihotzera komunikatzen saiatu, naturaltasun osoz, zeren sentipen gehiegikeriak ere atzera eginarazten du.

Ez ditzagun, bada, bi ahozkotasunak nahastu. Oratoria beharrezkoa da gizarte-maila batzuetan. Ahozko poesia eta ipuinak, eta horiekin datozen emozio-adierazpenak beharrezkoak dira nortasunaren garapenean, barne-orekaz bizitzeko, eta hori hasierako urteetan oinarri-oinarrizkoa da, eta irakaskuntza osoan ere ez genuke ahaztu behar. Nerabearoan agertzen diren arazo asko adinaren ezaugarriek sortuak dira, baina beste asko adierazpen-arazoetatik datoz. Eta arazo horiek ez dira oratoriarekin konpontzen, zuzeneko poesiarekin baizik; poesia zentzu zabalean harturik noski, orain arte esanda-koaren haritik. Sentipenei, emozioei, barne-zurrumbiloei izena jarri behar die nerabeak.

Beraz, badago oratoria baino oinarritzkoagoa den ahozkotasan bat, eta hori da lehenik kontuan izan behar dena, bai etxean, bai eskolan. Eta etxeko ahozkotasan horretan, badira pieza kanporakoiak, jolaserakoak, dibertsiorakoak:

Zubiri, zubiri, nongori nongo
 nongo alkate zerade?
 Frantzibeherako errege baten
 seme-alabak gerade.
 Hemendik hurrena, hemendik hurrena
 pasatzen dena
 bertan geldituko dela.

Horrelakoak dexente jorratzen dira eskoletan, eta pailazoez eta begiraleek aski erakusten dituzte, nahiz eta oraindik lan handia geratzen den egiteko.

Baina bada bigarren alde bat ahaztu eta abandonatuxea duguna: pieza barnerakoiak, lirikoak, barne-emozioei hitzak jartzen dizkietenak. Hor sartzen dira gure lo-kanta gehienak; hor sartzen da poesia lirikoa, errima eta hitz-jolasa baino areago doana, sentipen bat barruraino eramateko gai dena; hor sartzen dira amandre-ipuinak, barne gatazka sakonenen adierazle direnak.

6. AHOZKOTASUNA ETA LITERATURA

Ahozkotasanaren eta idatzizko literaturaren arteko harremana ama-umeen artekoa baldin bada, ez dago asko gehiago erantsi beharrik kontuari. Dena dela, azter daiteke zenbateraino jotzen duen idazleak ahozko iturri zuzenetara, eta zenbateraino edaten duen tradizio idatzitik.

Aski agerikoa da hasierako idazleak hein handi batean ahozko tradizioaren biltzaile izan zirela. Askotan, idazlea bera ere tradizioko pertsonaia erdi asmatutzat jotzen da; ez dakigu ziur Homerorik izan ote zen, edota tradizioa jaso zuten zenbait idazleren sinbolo ote zen Homero hori.

Egia da mendebaldeko literatura-tradizioak zenbait oinarritzko liburutatik edan izan duela batik bat: Biblia, Homero, Hesiodo, idazle latindarrak, ekialdeko tradizioa (indiarra, arabiarra...), baina agerikoa da, halaber, nola behin eta berriz ahozko iturriek eragin zuzena izan duten literatura jasoan. Erdi Aroan ahozko tradizioa etengabe nahasten zen idatzizkoarekin, elkari eraginez. Eta hortik jaso dugu gaur egun ezagutzen dugun ahozko materialik gehiena.

Baina batik bat Erromantizismoak jiratu zituen berriro begiak ahozko tradiziara, eta idealizatu egin zuen tradizio hori. Ahozko tradizioa jasotzeko eta aztertzeko lan erraldoiak orduan hasi ziren batik bat. Eta gurean Azkue, Lekuona zaharra, Barandiaran eta enparauak beranduxego etorri baziren ere, bultzada erromantiko horren ondorioztat jo ditzakegu.

Herri-tradizioaren idealizazio horrek idazleengan eragin zuzena izan zuen, eta material herrikoiak modu ohartuan erabiltzen zituzten, hala zuzeneko iturrietatik, nola idatziz jasotako iturrietatik.

Gurean, kontu horrek eztabaida sutsua eragin zuen gerra aurrean. Aitzolek, tradizio herrikoia erabiltzeaz gainera, emaitza ere herrikoia nahi zuen, eta hortixe sortu zen ikamika: Lizardi, Lauxeta, eta bere modura Orixe ere bai, material herrikoi hori beren helburu jasoetarako erabiltzearen aldeko ziren, eta ez bertsolaritzaren pareko literatura bat sortzearen aldeko.

Baina argi dago herri-iturrietatik edatea inork ez zuela zalantzan jartzen. Nolabait, literaturari bizi-indarra emateko modu bat zen, liburuetako bide hotzak berotzeko modu bat. Eta kontu hori gaurdaino iritsi zaigu: Arestik barra-barra erabili zuen ahozko tradizioa, Miranderengan ere badira zantzuak; Lekuona, Gandiaga, Lete, Atxaga, Lertxundi... bakoitzak bere modura, baina ahozko iturrietatik edan dutela oso nabaria da. Arestirengan koplak zaharrak eta bertsolaritza oso agerikoak dira, eta ez legoke gaizki haren antzezlanen iturriak aztertzea ere; Lekuona ahozko tradizioaren aztertzaile handia izan genuen, eta bere modura erabili zuen han ikasitakoa bere poesian; Gandiagarengan Bizkaiko baserri giroko tradizioa oso nabaria da, Leterengan bertsolaritza, Atxagarengan Pello Errotaren alabaren herri-hizkera; Lertxundirengan ugari dira herri-tradizioko kontakizunak, beste inorengan baino areago...

Beraz, ahozko tradizioak literaturan eragin handia du, eta, gainera, gaur egun idazle bakoitzak bere molde propioak aukeratzen ditu, bere ahozko tradiziotxoak biltzen du bere lanetan. Zer magia ote dario ahozko tradizioari horrela erakartzeko? Bada, agian, ama ukatu duen nerabeak pixka bat heltzen denean bizi ohi duen amagana itzuli behar diren pareko da. Agian, diot, zeren zenbait idazlerentzat ahozko tradizioa irakurri beharreko beste liburu bat baino ez da, eta, Internetez eskura badaiteke, hobe. Halakoentzat, amaitua da idealizazio erromantikoa, hautsi da anfora, eta mila zatitan multiplikatua da. Baina anfora barruko ura ere mila zatitan hautsi ote da, bada?